

17.ZENBAKIA-2022-AZAROA

GUKA

AZAROAK 25

ESPIRALA APURTZEKO ALDARRIA





Euskararen plaza gara, herriaren irudia eta komunitatearen ahotsa

B
BALEIKE

K
KARKARA

erlo
ERLO

MAX
MAXIXATZEN

KH
UROLA KOSTAKO
HITZA

UZ
UZTARRIA

ZH
ZARAUZKO
HITZA



**HEDABIDEKIN
ERE BAI**

MATXISMOAK BADITU MILAKA AURPEGI



MARIA MAYA MANTEROLA

Heltzear da Indarkeria Matxistaren Aurkako Nazioarteko Eguna. *Berria* egunkariak bildutako datuen arabera, Euskal Herrian 115 emakume eta 15 ume hil ditu indarkeria matxistak 2003tik. Beste urte batez, herriz herri eta auzoz auzo, kaleak hartuko ditugu horien guztien oroimenez. Baina baita indarkeriaren hartzapar luzeez ohartarazi ere, biolentzia horrek, erro bera izan arren, askotariko formak eta mekanismoak baititu. Mugimendu feministako kideek azaldu bezala, sutilagoak diren indarkeria egoera horiek – umore eta txiste matxistek, inbisibilizatzeak, mikro-matxismoek nahiz zenbait komunikabideren jardunak– eusten eta errazten dituzte identifi-

katzeko errazagoak zaizkigun eraso esplizituagoak.

Formaz eta itxuraz dira askotarikoak erasoak, eta mugimendu feministaren teorizazioari eta ahaleginari esker ulertu dugu indarkeriaren eraldatzeko abilezia zenbaterainokoa den, zitzadak eraso matxista baitira sumisio kimikoa eragin ala ez.

Noan harira. Indarkeria beraren definizioa ez ezik, indarkeria pairatzen duten subjektuen irudia zabaltzea ere ko-

Indarkeriaren beraren definizioa bakarrik ez, pairatzen duten subjektuen irudia zabaltzea ere komenigarria dela uste dut

menigarria dela uste dut. Izan ere, gizonez eta emakumez osaturiko gizartea behar du sistemak, eta bazterrekoak bazterrean egotea patriarkatuak aurrera jarrai dezan. Sistemaren arauetatik kanpo gelditzen den edozein genero disidentek edo gorputz identitatek ere jasaten du, beraz, biolentzia matxista. Eta indarkeria matxistaren aurka egiteko egunean horiek ere aterako dira kalera, hala marikak, nola pertsona ez-binarioak.

Eta hitz egin dezagun erantzukizunaz. Bakoitzak har dezagun egoerarekiko arduradagokigun lekutik. Gizonok, aztertu zuen jarrerak; ez izan konplize. Egun batez kaleak hartzeak baino, egunero ispiluaren aurrean jartzeak bide hobe batera eramango gaitu. ■

Argitaratzailea: Urolako Komunikazio Taldea

Zuzendaria: Onintza Lete Arrieta

Tirada: 7.750 ale



Enpresa laguntzaileak:



DANOBATGROUP



DENETARIKO ZIZTADAK, JATORRI BAKARRA

Azaroaren 25aren bezperetan, indarkeriaren ertz ugariak bistaratzea izango da mugimendu feministaren erronketako bat. Bailarako herrietako udaletako Gizarte Zerbitzutara jo duten emakumeetako batzuen ahotsak bildu ditu Urolako Komunikazio Taldeak orriotan, baita Errezilen eta Beizaman egindako indarkeriaren aurkako protokoloaren nondik norakoak ere.

Testua: **Maria Maya Manterola.**

Argazkiak: **Arnaitz Rubio Aprea eta Nerea Uranga.**

Indarkeria matxistaren aurkako aldarria kalera ateratzeko eguna da azaroaren 25a. Egun horretan ez ezik, gainerakoetan ere indarkeriak zeharkatzen ditu emakumeen nahiz sexu eta genero disidenteak diren pertsonen egunerokoak. Gaiaz erreportajea egin du Urolako Komunikazio Taldeak, besteak beste, mugimendu feministako kideekin, indarkeria matxista pairatu duten emakume batzuekin nahiz indarkeriaren aurkako protokoloa sortu duten Saiaz mankomunitateko ordezkariarekin hitz eginda.

Zarauzko Bilgune Feministako kideak dira Ekhine Eizagirre eta Eider Gurrutxaga. Haien hitzetan, mugimendu feministak "lan izugarria" egin du indarkeria matxistaren bueltan teorizatzen, eta gainerako urteetan egin bezala, indarkeriaren ertz guztiak agerian uztea izango da aurtengo azaroaren 25erako eskuen artean duten erronketako bat.

Indarkeria matxista bere osotasunean bistaratu nahi baldin badute ere, azaroaren 25aren bueltan antolatutako ekintzetan, urtez urte gai zehatz bat izaten da ardatza. "Pandemia garaian, etxeko indarkeria hartu genuen gaitzat; aurrez justizia patriar-

kala nahiz haurrenganako indarkeria landu genituen; polizia indarkeria ere bai beste urte batean... Aurtengo aldarrikapenak orain ari gara lantzen, baina ziztaden bueltan sortu den babesgabetasuna, beldurra eta alarma salatu nahi ditugu", esan du Gurrutxagak.

Hain zuzen ere, indarkeriaren aspektu sinbolikoaren, zuzenaren eta egiturazkoaren "adierazle eztaba daezinda" da ziztadena, Eizagirrenen hitzetan. Indarkeria forma horien ezauzgarriak aletu ditu hark: "Aspektu sinbolikoa komunikabideetan, sare sozialetan eta abarretan dagoen emakumeen erreferentzia falta da; izan ere, esanguratsua da gizartean emakumeen eta gizonen zer irudi transmititzen diren eta horrek nola mugatzen gaituen. Zuzeneko indarkeria da pertsona batek besteari egiten diona: izan daiteke zerbait fisikoa, izan daiteke begirada batekin egiten dena... Eta egiturazko indarkeria, berriz, gizarte antolaketari lotuta egiten dena da; hau da, gizarte antolaketa ekonomiko-politikoari, botereari, lotuta egiten dena.

Nabarmena da nork duen boterea, zer botere harreman dauden gizartean eta horiek nola sortzen eta mantentzen duten indarkeria matxista".

Bilguneko bi kideen ustez, izebergaren analogia aproposa da indarkeriaren funtzionamendua ulertzeko; izan ere, horrek agerian uzten du gizartean naturalizat hartzen diren jokabideek nola eusten dituzten eraso esplizituagoak. "Naturalizat eta normalizat hartuta dauzkagu hainbat egoera edo eraso mota, eta ez gara identifikatzeko gai askotan. Zerbait esplizitua gertatzen baldin bada, horren azpian naturalizat ditugun eta ikusezinak diren edo hautemateko gai ez garen hainbat indarkeria mota badirela esan nahi du. Horregatik, garrantzia dauka indarkeria matxista bere osotasunean lantzeak eta dimentsio zabal hori agerira ateratzeak".



"Izebergaren analogia aproposa da indarkeriaren funtzionamendua ulertzeko"

Bere osotasunean bakarrik ez, forma berritan ere ekarri du indarkeria, Eizagirrenen esanetan

Indarkeriaren dimentsioa mahaigaineratuta, Gurrutxagak izen-abizenak jarri dizkio ziztaden aferari. "Indarkeria zuzena, sinbolikoa eta egiturazkoa azaltzen dute ziztadek. Egiturazkoa da gizonak horretarako antolatu egin direlako, ez direlako izan kasu isolatuak; indarkeria zuzena da gizon batek emakume bati indarkeria fisikoki egin diolako; eta sinbolikoa da, emakumearen gizonaren kontrola erakutsi eta gizartean beldurra nahiz alarma sorrarazi dituelako. Indarkeria bere osotasunean ekarri dute ziztadek".

Eizagirrearen ustez, forma berrietan ere ekarri du indarkeria ziztaden aferak, baina indarkeria "etengabe" moldatu arren, haren arabera, ez da kasualitatea erasotutako pertsona guztiak eta beldurra sentitu dutenak emakumeak izatea: "Emakumeen gaineko kontrol adierazpen bat da, botere harreman nahai gainean jartzeko eta indartzeko saiakera bat".


Nolanahi ere, ziztada bidezko erasoengatik inguruko "irakurketa egokiak" egin direla uste du: "Adibidez, gizonen esan zaie egoten ez baldin badakite, ez etortzeko". Horrez gain, mugimendu feministak egoera gizonen interpellazio zuzena egiteko eta fokua haiengan jartzeko baliatu duela azaldu du: "Nahikoa argi ikusi eta sentitu dugu gizonak antolatu egin direla ziztadak egiteko. Badakigu oro har badagoela nolabaiteko korporatibismo moduko zerbait, baina ziztaden kontua hain izan da esplizitua... Beldurgarria ere izan da".

Gizartean, orokorrean, ziztadak eraso bezala irakurri baldin badira ere, "despistatzeko saiakerak" ere egin direla iruditzen zaie Bilgune Feministako bi kideei. Diskurtsoa "alarma soziala" piztera desbideratu dela uste dute: "Instituzioetan eta komunikabideetan indarkeriari ematen zaion trataera oso arriskutsua da, eta azkenean, kontrako efektua lor daiteke. Zalantzan jarri da ziztadak, bere horretan, indarkeria matxista ote diren, eta horrekin agerian geratzen da gizartearen pentsatzeko era zeinen sinplea den. Ez gara indarkeria matxista ikuspegi zabalago batetik aztertzeko gai". Eta ez indarkeriaren formari lotuta soilik, baita eragiten dien subjektuei dagokionez ere; identitate eta genero disidenteak diren pertsonen, alegia. Hala azaldu dute: "Indarkeria matxista emakumeekin lotzeko joera daukagu, eta gu geu sar gaitezke momentu batzuetan hori egiten dutenen zakuan. Subjektu anitzek eragiten die, ordea, indarkeriak, eta errealitate guztiei erantzun behar diegu".

Sistema judiziala eta salaketan soka

Erabateko babesik gabe, baina adostasun handiarekin onartu zuten indarkeria matxistari aurre egin nahi dion Berdintasun Legea joan zen martxoan Eusko Legebiltzarrean. Orduko hartan, emakumeenganako diskriminazioari eta indarkeriari erakundeek ematen dioten erantzuna hobetzeko beharraz nahiz erreparazioaz jardun zuten hizketan agintariek. Gurrutxagaren ustez, legearen

Gizarte zerbitzuek jasotako indarkeria kasuak, herriz herri



Iturria: Urolako Komunikazio Taldea.

norabidea "ona" da, baina "hutsuneak" ere badituela aipatu du. Dena den, legea bera "oso garatuta" dagoen arren, "justizia patriarkalaren bueltan antolatutako" sistema instituzionalak eta legearen garapenak talka egiten dutela esan du: "Antolaketa patriarkala eta kapitalista da, eta hortik dator lege hori".

Kontrara, eredu punitibista ordezkatu lukeen justizia ereduaz hitz egin du Eizagirrek: "Feminismoak urteak daramatza justizia ereduaz auzitan jartzen eta justizia feminista aldarrikatzen, eta horrek justiziaren beste ikuspegi bat izatea esan nahi du". Patriarkatua epaile bat dela zioen eta Argentinan 2020an egin zuten performance bat ekarri du gogora hark, esaldia "oso adierazgarria" delakoan dagoelako. Izan ere, patriarkatua epailea baldin bada, legeak asmo onez egin arren, horiek aurrean horma bat izango dutela uste du. "Horrek ez du esan nahi pauso bat aurrera edo beste bat atzera ezin duzunik eman, baina goitik behera irauli behar dena sistema judiziala bera da. Berdintasuna aldarrikatu egiten da; esaten dugu mendebaldeko feminismoaren hastapenetan emakumeen eskubideak aldarrikatu egiten zirela, gerora ere aldarrikatu da berdintasuna, baina feminismoaren arlotik pauso bat haratago eman nahi dugu

"Gezurra da salatuta amesgaiztoa bukatu egiten dela"

TESTIGANTZA ANONIMOA (ZUMAIA)

"Erregina baten pare zaintzen ninduen hasieran. Bigarren haurra jaio zenean hasi zen guztia. Asma bortitz batekin jaio zen haurra, eta medikuarengana joan behar izaten genuen sarritan. Senarra gauza deigarriak egiten hasi zen. Esaten zidan asmakizun hutsa zela haurrarena, hura ospitaleratzea nahi nuela. Hiru egun eman nituen haurrarekin ospitalean dutxa bat hartzeko astirik gabe, eta bera ezer gertatuko ez balitz bezala, Zumaian egon zen, lasai. Haren jokabidean arreta gehiago jartzen hasi nintzen. Haurrak jaio aurretik adostu genuen droga kontsumoa alde batera utzi behar zuela aurrera egiteko, baina kontsumitzen jarraitzen zuela ohartu nintzen. Esaten zidan oparitu egiten ziotela, baina droga ez dizute besterik gabe oparitzen. Garbi neukan horrela ezin genuela jarraitu. "Putakumea, zergatik esnatu zara?" esanez, horrela ematen zizkidan egun onak.

Sukaldeko lauzetan labanek errebotatu egiten dutela ikasi nuen. Egun batean sakelakoa sofa-oheko zirrikitu batetik erori zitzaidan, eta jasotzeko laguntza eskatu nion. Sofa labankadaz bete zuen, eta ni mugitu ere egin gabe geratu nintzen, gero labana niri sartuko zidala uste nuelako. Sofan lo egiten hasi nintzen, baina ez nuen atseden hartzen. Alokairuan bizi ginen, eta pisuaren jabeak esan zidan bikote ohia etxetik bota behar nuela, bestela guztiok kaleratuko gintuelako. Izan ere, portala goitik behera hautsi zuen. Etxepera etortzen zen oihu egitera. Egun horietako batean, haren lagun batek deitu zidan iluntzean: "Zerbait gertatzen bazaizu ez diot nire buruari barkatuko. Zure bikotekide ohia zu hiltzeko norbaiten bila dabil". Pertsona hura deklaratzera deitu zuen epaileak gero.

Gogoan dut Donostian COVID-19aren aurkako txertoa eman behar zidatenekoa ere. Haurren zaintza partekatua genuen garai hartan. Donostiara eramango ninduela esan zidan. Azeleragailua gogor sakatu eta parez pare zetozen kotxeak saihesten hasi zen, seme-alabak, ni eta bera kotxean ginela. Bide ilun

batetik eraman gintuen, eta atea zabaltzea lortu nuen. Bide ertzean pertsona bat topatu genuen; aingeru bat zela uste dut. Nire alabak ulertu ez nuen zerbait esan zion pertsona hari kotxetik, eta senar ohiak hark poliziarri deituko ziola pentsatu zuen. Azeleratu egin zuen berriz ere, ezkutatzeko. Baserri baten lurretara sartu ginen, eta baserritarrari laguntza eskatu nion, baina alde egiteko eskatu zigun. Zur eta lur geratu nintzen. Polizia atzetik zeukalakoan, amore eman eta anaiari deitu zion bikotekide ohiak.

Horiek dira gertaerarik deigarrienak. Epaiketaren zain nago, eta prebentziozko neurri bezala, 300 metroko urruntze agindua dauka senar ohiak. Ertzaintzak emandako sakelako bat izaten dut beti gainean, Bortxa izeneko aplikazio bat instalatuta duena. Edozer dela ere, botoi batean klik eginda jartzen ditut jakinaren gainean ertzainak, eta kasurik txarreanean, Zarauztik baldin badatoz, 11 minutuan dira Zumaian.

Auzitegiko psikologoaren txostenean jasota dago senar ohiaren oldarkortasunaren berri, baina ni horren jakitun izanda, hura haserrarazi egiten dudala ere idatzita dago han. Haurrekin egon al daitekeen ebaluatu behar dute orain, neurriak prebentziozkoak direlako. Pentsa, alabak ihes egiteko plan bat prestatu zuen senar ohiarengana joaten zirenerako.

Salatuta, amesgaiztoa amaitu egiten dela dirudi, baina gezurra da; beste fase bat hasten da orduan. Jendeak kalean geldiarazi egin izan nau, eta entzun behar izan dut nire senar ohia on-puska bat dela.

Kalean margoketak ere egin izan ditu. Alabak hala esan zidan: "Begira, ama, margoketa bat egin dizute". Eta nik "zer buru bihurria duzun", erantzun nion. Baina arrazoi zuen. Margoketa gehiago topatu genituen etxera bidean, eta haietako bat salatu zuen bere lagunari eskainia zen.

Emakumeon* Etxeak babes handia eman dit, eta epaiketaren bueltan ere emango didala uste dut. Behar izan dudanean, haurrak ere zaindu dizkidate. Argi izpi bat izan da iluntasunean".

"Hutsaren hurrengoa sentiarazi arren, bere beharra izaten duzu"

TESTIGANTZA ANONIMOA (AZPEITIA)

"Bikote harremana hasi nuen mutil batekin, eta hasieratik iruditutako zitzaidan oso posesiboa zela. Ez nion arreta handirik jarri horri, pasatuko zitzaioala pentsatu nuelako. Ez nuen uste tratatu txar emalea izatera iritsi zitekeenik; inoiz ez duzu pentsatzen pertsona bat puntu horretara iritsi daitekeenik. Badakizu halakoak inguruan gertatzen direla, baina ez duzu espero zuri gertatzerik.

Jeloskorra zen, eta batzuetan erasokor ere jartzen zen, baina ez nirekin. Denbora pasatu ahala, une oro berarekin egotera behartzen ninduen; ezin nuen lagunik eduki, eta beti errudun sentiarazten ninduen gauzak berak nahi bezala egiten ez baldin banituen. Halako pertsonak psikologikoki min handia eragiteko gai dira: zerbait gorria ikusten baldin baduzu eta hark beltza, ez dakit nola, baina zuk ere beltza ikusten amaitzen duzu. Manipulazioa da hori. Kaka zaharra sentitzen zara; hala zara.

Familia gaizki esaka aritzen zen, nire lagunak ez zirela onak esaten zidan... Zu babes zaitzaketen pertsonengandik urruntzea nahi izaten dute halakoetan. Tratatu txar psikologikoak eman arren, batzutan ez zara horretaz kontziente. Gauza zatarak esaten dizkizu, baina ez zara horiek tratatu txarrak direla konturatzen. Normala dela pentsatzen duzu, baina ez da hala.

Denbora batera, berarekin bizitzera joan nedin nahi izan zuen, gertuagotik kontrolatzeko segur aski. Joan egin nintzen, eta orduan erasoak agerikoagoak izaten hasi ziren; eraso fisikoekin hasi zen. Horrelako pertsona batekin ezin nuela egon konturatu nintzen, baina hutsaren hurrengoa

sentiarazi arren, bere beharra sentitzen duzu, bera gabe ezin duzula bizi. Oso tristea da.

Azkenean amari kontatu nion guztia. Oso gauza kuriozua izan zen. Amarenera joan nintzen, eta galdera bat egin zidan hark. Nik ez nuen ezer kontatu nahi, eta normal nengoan, erasotzailea nola jarriko zen beldur nintzelako. Baina amak zera galdetu zidan: 'Ondo al zaude? Benetan ondo al zaude?'. Eta hori entzun orduko negarrez hasi eta dena kontatu nion. Orduan hasi ziren familiakoak laguntza bilatzen, eta Azpeitiko Gizarte Zerbitzuek psikologo batengana bideratu ninduten. Psikologo horrek asko lagundu dit, asko-asko. Izan ere, oso zaila da horrelako leku batetik irtetea. Joan zen urtean eten nuen harremana, baina duela hilabete batzuk utzi ninduen bakean.

Nik ez salatzea erabaki nuen, badakielako zer esan behar duen eta zer ez. Bere bikote ohiak, ordea, salatu egin zuen nirekin harremana hasi aurretik. Dena den, prozesuak ez zuen aurrera egin. Gogoan dut psikologo batekin egon zela epaiketa izan zuenean, eta hark galdera batzuk egiten zizkiola: agresibo jartzen ote zen eta beste. Barrez irten zen psikologoarenetik, inozoak zirela esanez.

Jendeak esaten zidan, salatuz gero, epaiketan zure aurka egiten dutela nnola erantzuten duzun ikusteko. Izaeraren arabera, modu batera edo bestera eraman dezakezu prozesua, baina nik badakit oso gaizki pasatuko nukeela. Bera nazkatu arte egon naiz zain, badakidalako justiziak ez dituela halakoak behar bezala kudeatzen eta denbora asko igaro daitekeelako bide judiziala amaitu arte".

**"ZERBAIT GORRIA IKUSTEN
BALDIN BADUZU ETA HARK
BELTZA, ZUK ERE BELTZA
IKUSTEN AMAITZEN DUZU"**

"Alabak behar izan nauelako berpiztu naiz"

TESTIGANTZA ANONIMOA (ZUMAIA)

"Zumaian bizi ginen, eta bikotekidea eta biok bertan ezkondu ginen. Hilabete gutxira geratu nintzen haurdun; bizitzak eskainitako opari bat izan zen, ez nuelako pertsona harekin haurrik izatea aurreikusten. Ez nuen harekin egon nahi, baina gogor heldu ninduen; ez ninduen soltatzten.

Haurra ez zen hazten, tripa barruan arrain txiki bat balitz bezala mugitzen zen. Hogeita bat egunez jarraian egiten nuen garbitzaile gisan lan, eta astebete izaten nuen jai gero. Zortzi hilabeteko nengoela, senarrak 48 orduz giltzapetu ninduen etxean.

Ostiral gau batean, eztabaida zentzugabeekin hasi zen, etengabeko erreklamazioekin, ez zidan afaltzen uzten. Ohera joan eta eztabaida amaitzen saiatu nintzen, baina ezinezkoa zen: ia gau osoa gogaituta pasatu zuen, lo egiten utzi gabe, oihuka eta kolpeka.

Larunbatean, etxeko atea giltzaz itxita eta telefonorik gabe utzi ninduen. Itzuli zenean, bezperako gai berarekin jarraitu zuen, eztabaidan, kolpeak ematen eta labana eskuan zuela ni mehatxatzen. Burua burkoarekin estaltzen zidan ukabilladak emateko, eta esaten zidan bazekiela markarik utzi gabe jotzen. Hantetan hematoma ateratzen zitzaizkidan.

Igandean, Zumaia erdi hutsa zegoen, kilometroak ari zirelako ospatzen Zarautzen. Bazkalorduan kalabaza pixka bat egosi nuen. Ohetik jaiki eta ikusi ninduenean, balkoira bultzatu eta bertan giltzapetu ninduen, labana eskuan zuela begiratzen zidan bitartean. Gaizki sentitzen nintzelako eta uzkurdurak nituelako, Zarauzko ambulatortara lagundu zidan ez nuela salatuko hitz eman eta gero. Bide osoan niri atximurka egiten aritu zen, eta zerbait esanez gero, hil egingo gintuela mehatxatu ninduen.

Anbulatortara kontsultara bakarrik sartu ahal izatea eskatu nuen, eta berak ere sartzea nahi zuen arren, hura

beste gela batera eramateko aitzakia jarri nuen. Medikuari eta erizainari laguntza eskatu nien han, eta poliziarri deitu zioten haiek.

Anbulatortara sartu zirenean nire ahotsa errekonozitu zuten ertzainek. Izan ere, egun batzuk lehenago deitu nuen zer laguntza eskaintzen zuten galdetzeko, baina ez nuen senarra salatu nahi izan beldur nintzelako eta oso bakarrik nengoelako.

Zesarea bidez erditu nuen, haurrak ez baitzuen indarrik modu naturalean jaiozkeko. Euskal Herrian geratu nintzen [Hego Amerikako herrialde batekoa da sortzez], han familia izan arren, hemen jende zoragarria dagoelako, eta oro har, osasungintza, hezkuntza eta egonkortasuna eskura ditugulako. Etxeko indarkeriatzat hartu zuten nire kasua, eta erresidentzia txartelik gabe geratu nintzen. Gaizki aholkatu nindutela konturatu nintzen, baina atzerritartasun bulegoan esan zidaten ez nindutela Euskal Herritik botako haurra bertan jaiozkeko zelako.

Oraindik ere borrokan jarraitzen dugu. Senar ohiari 200 euroko pentsioa ordaintzea dagokio hilabetero, baina ez du sekula egin. Senar ohiak dirurik ez daukala esaten entzun behar izan nuen epailea. Akaso galdetu al didate niri zer egin dudana alaba mantentzeko? Orain abizena aldatu nahi du alabak, eta prozesu horretan ari gara. Nire sabelean jasan zuen genero indarkeria hark, eta beraz, genero indarkeriaren biktima bat da bera ere.

Alabak behar izan nauelako, fenix hegazti bat bezala berpiztu naiz. Alabari ez nion ezagutzen ez duen pertsona batekiko gorrotoa sorrarazi nahi; berak erabaki du hura ez ezagutzea. Guraso-agintea eskatu dut

orain; epaitegietakoa etengabeko borroka da. Zorionez, alaba bikaina daukat, eta hori da senar ohiari eskertzen diodan gauza bakarra".

"ZORTZI HILABETEKO
NINGOELA, SENARRAK 48
ORDUZ GILTZAPETU
NINDUEN ETXEAN"

orain. Ez dugu berdintasun soilean sinesten, eta irauli egin behar dugu gizonen eta emakumeen genero sistema eta desberdinkeria sozialak zein botere harremanak mantetzen dituen gizarten antolaketa hau. Hori, baina, ez da berdintasunerako lege batzuekin soilik lortzen".

Indarkeriaren sokak ez du etenik salaketa jarri eta gero ere. Eizagirrek dioenez, prozesu "oso bortitza" da salatzearena: "Salaketa jartzen duten pertsonak aurre egin behar izaten diete txutxu-mutxuei, eta gainera, zalantzan jartzen da erasotuaren hitza. Badira beti errepikatzen diren faktore batzuk, eta zer esanik ez epaitegietan gertatzen denaz; izan ere, ez dute bermatzen prozesua goxotasunez egitea. Babesa eta goxotasuna epaitegietako errealitatetik hain daude urruti... Horrek berak bakarrik zer pentsatua eman beharko luke".

Hark esan duenez, erasotua artatu behar duen pertsonak indarkeria matxistarekin "kontzientziatuta" egon behar du: "Jakin egin behar du parean daukan pertsona nola artatu, hura nola entzun, haren beharrak erdigunera ekartzen asmatu behar du... Gaur egun, halakorik ez da inondik inora bermatzen, ez da lehentasuna, eta gauza horiei ez zaie garrantzirik ematen".

Herri egituretako instituzioek badute gaiaz zer esana edo zer egina Gurrutxagaren aburuz, horiek baitira herri komunitatearekin zuzeneko harremana duten erakundeak. Baina sistema judiziala bezalaxe, udalak ere "gizarte egitura kapitalistaren eta patriarkalen barruan" daudela uste du. Adibide bat jarri du hori azaltzeko, Zarautzen gertatutako azken erasoaren ondotik, hango udalari proposamen zerrenda bat helarazi ziotela kontatuta: "Indarkeriaren prebentziorako Zarautzek proposamen integral bat behar duela aipatu genien ordezkari, eta uste dugu hori baliagarria dela Urola Kostako beste herrientzat ere". Zarauzko Udalari helarazitako proposamenean zerrendatutako puntuak aletu ditu: "Ostalariekin lanketa bateratu bat egin beharko litzatekeela jaso genuen, haiei formazioa eta kontzientziaziorako tresnak eskainiz. Beharrezkoa ikusten dugu ikaste-txeetan autodefentsaz hitz egitea ere. Bestalde, udalak mugimendu feministaren lana errazteko askoz gehiago egin deza-keela uste dugu; izan ere, beste herri askotan mugimendu feministaren hitzari eta beharrei garrantzia ematen diete eta baliabideak eskura jartzen dizkiote. Horren falta sumatzen dugu, adibidez, Zarautzen. Gainera, genero disidenteak diren pertso- nei lotutako lanketaren bat egin beharko luketeelakoan gaude. Halaber, gizonen maskulinitate eredu berriak lantzeko espazioak, guneak, kontzientziazio saioak... ere egin beharko lituzkete".

Euskal Herri feminista ortzimugan

Zarauzko Bilgune Feministak Euskal Herriko gainerako asanblada feministekin bat egiten du Bizitzak Erdigunera plataforman. Zaintza jasagarriaren gogoeta prozesua ari dira gauzatzen

"Herritarrekin osatu dugu indarkeriaren kontrako protokoloa"

ELENA RIKONDO GIZARTE LANGILEA

Bi urteko prozesuaren ondoren, Indarkeria Matxistaren Kontrako protokoloa osatu dute Saiaz gizarte zerbitzuetako mankomunitateko lau udalerrietarako, horien artean Errezilerako eta Beizamarako. Udazkena heltzearekin batera egin dituzte aurkezpenak bi herri horietan.

Elena Rikondo gizarte langilearen hitzetan, "herritarrekin batera" egin dute protokoloa idazteko bidea, eta Farapi elkartearen laguntzarekin: "Talde feministak eta gainerako eragileak gonbidatu genituen, herritarrekin batera egin nahi genuelako lana eta ez genuelako nahi instituzioen proiektu bat izatea eta herritarrengandik urrun geratzea". Aurkezpenetan iradoki nahi izan dute gertutasun hori, kalean bertan plazaratu baitute lanketa.

Indarkeria zeri deitzen zioten definitzea izan zen lehenengo pausoa. Indarkeriaren definizioa komuna adostea, alegia: "Zertaz ari gara hizketan? Zer da indarkeria matxista? Gure gizartean daukagun arazo handienetakoa da indarkeria matxista, eta azken urteetan, bereziki mugimendu feministaren lanari esker azaleratu da. Hasierako lanketa horretan ere, asko jardun genuen mikromatxismoaren gaiaz". Gero, saioak egin zituzten herrietako medikuekin, Ertzaintzarekin, epaitegietako langileekin, abokatuekin, indarkeria jasandako emakumeekin... Rikondok azaldu duenez. Saio haietan zehaztu zuten gaia nola landu, eta triptiko "xume" bat izan da emaitza.

Triptikoa "oso bisuala, hitz gutxikoa eta telefono bakar bat zuena" izatea nahi zuten, eta, horrekin batera, bideo bat ere osatu dute, triptikoa etxez etxe banatu ondoren zabalduko dutena. Ikus-entzunezko hori bide desberdinetatik zabalduko dutela azaldu du Rikondok. Gainera, "kolektibo desberdinetara" iristeko asmoz, hainbat tokitan landuko dute protokoloa:

"HERRITARREKIN EGIN DUGU, EZ GENUELAKO NAHI HERRITARRENGANDIK URRUN GERATZEA"



Errezilgo aurkezpenean izan ziren herritarrak.

"Herri eskolan landuko dute, aisialdi zerbitzuaren bidez ere jorratuko da gaia, eta ahalik eta kolektibo gehienengana iristeko lan egingo dugu".

Rikondoren arabera, zaila izaten da herrietan indarkeria kasuak badirela onartzea, eta ikusgarritasun hori lortzeko bidean pauso garrantzitsua izan da protokoloa lantzea. Gizarte langilea "pozik" dago herritarrekin batera egindako lanarekin: "Nik ez nuen aurrez halako lanik egin, eta are gutxiago horrelako gai bat lantzeko. Kalean gaiari buruz hitz egitea pauso handia da".

Indarkeria matxistaren aurka egiteko tresna bat edukitzea zen helburua, baina lanketa "aitzakia ederra" izan da herritarrekin komunitatea osatzeko ere: "Hori izan da helburu garrantzitsuena".

Azaroaren 8an dira berriz ere elkartzekoak, indarkeria matxistaren inguruko datuak eskuen artean dituztela. Azaroaren 25aren inguruan zer antolatu adostuko dute, bide batez. Talde horri jarraipena ematea gustatuko litzaieke datozen hilabeteetan ere: "Jendea aktibo mantendu nahi dugu, baina ilkusiko dugu zer ateratzen den. Esfortzu handia eginda, baina jendea mugitzen ari da"


uneotan, eta hura ere izan dute hizpide: "Euskal Herriko zaintza sistema komunitarioak nolakoa izan beharko lukeen irudikatu nahian ari gara, gaur egungo zaintza sisteman dagoen esplozazio eredua eta zaintzaren kate globalak kontuan hartuta; izan ere, gaur egungo gizarte egitura patriarkala eta kapitalista sostengatzen duten faktore esanguratsuak dira zaintza lanak. Feminismo dekolonialetik egin diren aldarrikapenek eta interpelazioek barrura begira jarri gaituzte, eta horiei buelta bat ematen eta horiek birpentsatzen ari gara".

Ultraeskuina batean eta bestean izaten ari den gorakada hizpide hartuta, feminismoak "bazterreko pertsona oro" barnebiltzen duela adierazi dute Bilgune Feministako bi kideek, eta horregatik, mugimendu antifaxistarekin duten lotura lehen lerrora ekartzearen garrantzian jarri dute arreta.

Begirada azken urteetara eramanda, COVID-19a tarteko ezarri zuten etxeratze agindua iritsi aurretik ikusitako irudia ekarri dute gogora biek ala biek: "Etxeratze aginduaren bezperako Martxoaren 8an kaleak gainezka ikusi genituen. Orduz gozotik ez da egin orduko baldintza berdintsuetan izan den Martxoaren 8rik. Baina badator berriz ere data hori, eta ea berriz ere orduko pulsuari eusten diogun. Hain zuzen ere, kontzientziak astintzea eta egunerokoan Euskal Herri feminista eraikitzea dira gure erronkak".

Uste dute feminismoari aitortza egin beharra dagoela. Hala azaldu dute: "Askotariko feminismoak daude gurean, baina ezinbestean, feminismoari aitortza egin behar zaio, urteetako borrokagatik eta lanagatik. Horren adibide da indarkeria matxistaz kontzientziatzeko egindako lana". Bestalde, emakumeei eta genero disidenteei ahalduntzeko tresnak eskaintzearen garrantziaz ohartarazi dute, baita bestelako harreman eredu batzuk sustatzeko beharraz ere. "Horretan jarraituko dugu. Beharrezkoa iruditzen zaigu egindako lanari balioa ematea eta mugimendu feministari merezitako aitortza egitea. Kanpotik ez bada etortzen aitortza hori, geuk egingo diogu geure buruari". ■





Desnibela 235 metro
Zailtasuna ★ ★ ★ ★ ★
Luzera 6,7 kilometro
Denbora 1 ordu eta 28 minutu

Erreferentziak
0:00 Urra baserria
0:27 Aitze baserria
0:38 Asti auzoko basoa
0:49 Asti futbol zelaia
1:28 Urra baserria



ZARAUTZ, MENDI BIDETIK

MIREIA GALARZA BASTIDA

Zarautzen kokatzen da hilabete honetako *Urrutira joan gabe* ataleko ibilbidea. Ez da gailur gogorra, baina ezta pasiera lasai-lasaia ere. Bietatik du, ez aspertzeko modukoa da. Edozeinek egin dezake, eta, beraz, aproposa da familia giroan goiz pasa eder bat egiteko, baita bakar-bakarrik herriko zaratatik alde egiteko ere. Aitze auzoa izango da abiapuntua, Bilbo aldetik joanda, autobideko bidesariaren eskuinaldean geratzen den auzoa. Urta baserrian hasiko du bidea mendizaleak, eta handik, KSB enpresarako norabidea hartu beharko du, erreka txikiari jarraituz pixkanaka-pixkanaka, eta seinaleei begira, Arizia sagardotegiko noranzkoari jarraitzeko.

Hiriguneko etxeekin eta hondartza inguru-koekin lotu izan da Zarautz, baina horrek ez du esan nahi herrian baserriak ez dagoenik; horretaz jabetzeko leku aproposa da auzo hori. Ibilgailuen zarataz gain, era askotako animalien soinuk dira inguru horretan entzun daitezkeen errepikakorrenak.

Goraka jarraituta, Urta baserriaren beste ikuspegi batez gozatzeko aukera izango du txangolariak, eta urrutira bada ere, baita herri-gunearena eta itsasoarena ere. Geldialdi txikia

eginda, berriro ere aldapan gora jarraitu behar da, Laurgainera joateko bezala; handik metro gutxira, errepidea ezker aldean utzi eta mendi bide batean barna Asti futbol zelai ingurura iritsiko da mendizalea, Rezabal txakolindegitik pasatu ondoren.

Behin Astira iritsita, bi aukera daude: ibilbidea amaitu eta bertan dauden egurrezko mahaietan hamaiketako edo bazkari eder bat egitea; edo hasierako puntura itzultzea. Ibilbide zirkularra eginda ala egin gabe, goiz pasa paregabea izango da.

Motzean

Ibilbidea egin nahi baina autorik ez dutenek, autobusez edo trenez iritsi ahal izango dute Zarautzera, eta handik, herria gurutzatuta, hasierako puntura iritsi. Urta baserria KSB enpresaren atzean dago, Urteta bidean. Autoz joatea nahi izanez gero, aipatutako baserriaren parean ere aparkatu daiteke, eta bestela, Abendaño industrialdean. ■



Ikusi hemen Xabat Olaizolak Mikel Lopetegi *Urta* harrijasotzailearekin egindako ibilbide ederra, bidean.



TELEBISTAN ERE

GUKA!

erto